

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2012ko azaroa • 273. alea



**GO Leko langileak
aurrera egiteko borrokan**

Azaroak
18

ELKARRETARATZIA
19:30TAN
PLAZA BARRITXIK

18 urte kartzelan

LURDES
BASHERRIRA!

...ta bittartian
kaliak beteko ditugu



Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonaa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoan frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

MGS
Seguros

Loli Nieves García


Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es



MARI MAR
HARATEGIA

Gurean
Euskal Herriko
produktuak!

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze



Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea

1910etik

943 75 13 45

Pazientzia kontua



Markel Arizaga Aitor Madrid

Iepa Aitor, dana ondo? Espero dot baietz. Denboraldi bat ba-
goiaz jadanik ekonomian adituak izaten eta patrikan daukagun
dirua oso ondo kontrolatzen.

Baina nere ikuspuntutik gauzak pixkanaka aldatzen doiaz, txarre-
ra. Hasieran telebistak sartzen zigun beldur bat zen krisia, gaur
jadanik bazter danetan ikusten dan zerbait da.

Prozesu honen hasieran lana galdu zutenek langabezia jarrai-
tzen dute eta goizero iratzargailua itzali bihar izateko luxua du-
tenek soldata berdinagatik lan gehiago edo eskubide gutxiago
onartu bihar dituela ikusten dute; hori, soldata mantentzeko
zorte ona izan ezker.

**“Madril aldian, protestak,
aktibitate turistikoak direla
ematen du”**

Guzti hau, krisi hasieratik hor zegoen baina momentuan kalia-
n ikusten dan giroa ez zen nabaritzen orduan. Madril aldian gu-
txienez, protestak, aktibitate turistikoak direla ematen du, hiriko
puntu askotan aurkitu ahal dira. Bankia kanpoan etxea galdu
dutenen talde bat kanpatuta, kongresu kanpoan gertatu zena
oraindik goguan, egunak joan eta egunak etorri protestak kalie-
tan, garraio publikoetan hilero hiruzpalau greba egun...

Pazientzia edalontzia nahiko beteta dagoela nabaritzen da eta
goialdetik ez da ikusten konponbiderik aurkitu dutenik. Zoritxa-
rrez, boteretsuek kalietara begiratzen dutenean ikusten duten
iluntasunarekin amaitzeko modu bakarria kaliek erretzea dala
ematen du. Beharbada suaren argiarekin benetako egoera zein
dan ikusiko dute behingoz. Hori bai, behin piztuta edalontzi bat
baino gehiago bihar izango dute sua itzali ahal izateko.

Plaentxian eta Euskal Herrian zela ikusten duzu edalontzia, erdi
hutsik edo erdi beteta?

Aupa Markel! Egia esan ez da giro. Urteak joan urteak etorri
gauzak okerrera doaz. Ekonomian adituak direnak darabil-
tzen hitzok eguneroko hiztegia sartuta ditugu: arrisku saria,
deflazioa, euro-bonoak, kalifikazio agentzia... entzutera ohitu
gara. Etxe kaleratzeak egunero gertatzen diren tragedia isilak
dira, bitartean bankuak, zulora eraman dituzten ugazabak etxera
doaz patrikak bostehun euroko billetez beteta. Eta gainera di-
ruz lagundu behar zaie, sistema pikutara joan ez dadin. Marka
da gero.

Horrela jarraitu ahal dugu, krisi zikin honek ekarritako ankerkeriak
azaltzen, baina aurrera begiratu beharra dago. Pentsatu beste
eredu bat posible dela. Lanik ez dagoela? Beharra banatu. Gu-
txiago irabazi baina danok irabazteko. Handikeriak kanporatu.
Gizarte justu eta solidario baten aldeko apustua egin. Bizi maila
jaitsi biharko dugula? Ba ziurrenik bai. Orain arte bizi izan garan
moduan ez dago jarraitzerik. Hori bai, gehien daukanak zerga
gehiago ordaindu dezala, denon onerako izan dadin eta ez gutxi
batzuen onerako bakarrik.

**“Aurrera begiratu beharra dago,
pentsatu beste eredu bat posible
dela. Lanik ez dagoela?
Beharra banatu.”**

Agian gertatzen ari den guzti honek begiak behingoz zabaldu-
ko dizkigu. Konturatuko gara ondoan dugun bizilagunak behar
gorrian dagoela eta elkartasuna bezalako hitza ezagutuko eta la-
guntza eskainiko diogu. Ingurugiroarekin lehen egiten genituen
ankerkeriez jabetuko gara eta gauzak dida! erabili eta bota beha-
rrean, lehenengo, gutxiago kontsumitu; gero, gauzak berrerabili
eta azkenik birziklatu daitezkeela jabetuko gara. Ez dauka itxura
onik bizi dugun egoerak baina, gure jarrera aldatzen hasten gara
edo jai daukagu.

Gutunak

Joxean Iñurrieta

Plazentzia euskaraz bizi garela?

Hala dio seinaleak herrirako sarreretan, baina adibide gisa, Plaza Zaharretik gora doan igogailuan sartzean gaur bertan ikusi dut Soraluze Futbol Taldearen agiri bat erdara hutsez idatzita; taldeen aurkezpena eta partida bat aipatzen dituena. Behin igogailuan sartuta "Cierre de puertas" - "Subiendo" eta azkenik "Segunda planta" entzun ditut bozgoragailutik.

Bada ordua inertzia hoiak gairitzen hasteko. Diru publikoa, hau da, denona behar litzatekeenaren laguntzaz bultzatzen diren zerbitzu edota aktibitateak euskaraz argitaratzea derrigorrezkoa deritzot.

Aspalditik abertzale deklaratzeko direnak ugari badira ere, euskalzaleak gutxi batzuk garela nabaritzen da gure kale, lantegi eta dendetan.

Soraluzeko EAJ

Bilduk beraren jendea kolokatzeko erabili nahi du udala

Urriaren 31an izandako plenoko puntuen artean. Lanpostuen zerrenda aldatzea, behin behineko lanpostu bat sartzeko, proposamena zegoen. Puntua ez zen onartua. Aldaketarekin Bilduk pertsona bat kontratatu nahi izan du, koordinazio tekniko eta administratibo funtzioak burutzeko. Kontratazio honek, soraluzetar guztioi 20.000€ko kostua suposatuko liguke. Baina zertara dator kontratazio hau?

Honen atzean, udal kudeaketan alkatearen eta bere udal gobernuaren ez gaitasuna dago. Bilduk jakinarazten digu "aholkulari" bat kontratatzen duela funtzio desberdinak burutzeko. Hain zuzen ere, alkateak egunetik egunera burutu beharko litzatekeen funtzioak burutzeko baina ez dituenak betetzen. Legealdi hasieran, gobernu eratu zutenean pentsatzen genuen alkatea liberatuko zela herriaren alde lan egiteko buru belarri. Ordea, esan zigun beraren lan baldintzak medio, ezin zela liberatu. Beraz, zertarako aurkeztu zen alkatetzarako?

Behin eta berriz esaten dute ez dagoela dirurik egungo krisia aitzakiatzat erabiliz. Baina beraiek nahi dutenerako aurkitzen dute, kasu hau adibide.

Argi gelditzen da; Bildurentzat ez direla lehentasunezkoak Soraluzeko arazoak. Beraien lehentasuna udaletxean beraien jendea kolokatzeko da. Hau al da Bilduk duen ideia herriaren alde lan egiteaz?

Bilduko zinegotziak

Udal gobernuak aholkularia kontratatzeaz

Onartzen dugu neurri berezia dela Bildutik planteatu duguna. Ilegalizazio dinamiken ondorioz azken udal hauteskundeetan zerrendak ezin izan ziren modu askean egin. Egoera horren ondorioak gairiditu eta udal lana ahalik eta txukunen betetzeko planteatu dugu aholkulari bat kontratatzea.

Harrizten gaituena da EAJ eta PSE aholkulari figuraren aurka horrela azaltzea. Beraiek gobernatzen dituzten administrazioetan jende pila bat kontratatzen dute horrela. Zergatik sortzen dizkizue orduan halako zalantzak gure planteamenduak?

Alkateak ez du dirurik kobratzen, eta aholkulariaren kostua 20.000 eurotako litzateke urtean. Erraz konparatu daiteke EAJk 2003-07 legegintzaldian kargu politikan gure herrian gastatu zituen 303.920 euroekin, urtero 75.000 eurotik gora.

EAJ partiduen legearen kontra omen dago, baina garai politiko berrian ere legearen ondorioak baliatzen jarraitzen du normalizazio politikoan urratsak eman beharrean. Noiz arte?

Bittartetik



Mundua txikitu

Esaten dabe oin urte batzuk hamaika plazentziatar alkartu zirala Bittorixako taberna batian, Abenida aldian. "Kasualidadia!" Hamaika. Eta ez dinot "hamaika" "makinatxo bat" esaten dan moduan, ez: 1, 2, 3, 4... kontatzen jarri ziran eta 11. Hamaika horrek, seguru nago, 60 eta 70. hamarkadetan bertako enpresekin lanera juandakuak izango zirala, gehixenak behintzat.

Ordurarte, jeneralian, jendia herrian bizi izaten zan, bertan egitten zebalako biharra eta bizimodua. Ni ibillitta nago Oregitarren nondik norakua aztertzen... eta badakizue zer? 1640tik hona, Irure balletik Osintxura joan zala urriñen juan zana.

Gaur egunian, osterara, ikastera eta lanera egunero Bittorixara, Donostiara eta urriñago be makinatxo bat plazentziatar juaten da, bidiak hobetu dirala-ta. Asko, lotara, etxera. Erosketak egittera dala, inguruko jaixetara dala, zinemara dala, asteburuetan be herritar ugari ataratzeko da.

Hara! Enpresen kasuan, enpresak oin ez dira Bittorixara juaten, oin Txinara juaten dira. Globalizaziñuaren eragiz, PIIGS-etatik BRICS-etarantz mobidu da desarrollismoaren ardatza (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrikara), horrek diralako garpent-bidean daren tokixak. Txinatik ezingo gara ba etorri lotara etxera!

Hori bai, krisis ditxosozko hau energien krisisa be bada, eta esaten da lehengora bueltatu biharko garala, gutxiago kontsumidu eta etxe inguruan bizitzera, 60. hamarkadako bizimodura buelta. Nola ikusten dozue? Igual ez dogu beste erremediorik izango... Hamaika ikustekuak jaixo gaittuk-eta! (edo, beste harek esan ei zeban moduan, "onse para ver hemos nasido!").

“GOLek langile guztiokin aurrera egin dezan borrokatzen dihardugu!”

GOLeko langileen batzordea



Amaia Alberto eta Carlos, langileen batzordeko kideak.

Urriaren 1etik GOL eta ALFA taldeko enpresa guztiak lege konkurtsalean - lehenago ordainketen etena zena- sartuta daude. Administrazioaile konkurtsalak zaintzen dituzte enpresaren kontuak eta etorkizunean izan dezakeen bideragarritasuna aztertzen dihardute. Langileak administrazioaileen ebazpenaren zain daude. Kezka handiz, eta aldi berean aurrera egiten laguntzen dien itxaropen izpi batez bizi dituzte ebazpena jakin bitarteko egunok.

“ALFAk bankuekin daukan zorra 60 miliokoa da.”

Zein izan da gertakizunen bilakaera?
Abenduan pagaren erdia bakarrik ordaindu ziguten. Uztailean ez ziguten paga extrarik ordaindu eta irailaren 20an bankuek kreditua moztu eta enpresa guztia dirurik barik gelditu zen. Urriaren 1ean jakinarazi ziguten lege konkurtsalean sartu ginela. Orain enpresa bakoitzak bere kontua du eta dirua soldatetara bideratzen da.

Zela heldu zarete egoera honetara?

Alfa Taldeak bankuekin daukan zorra da arazoa, 60-70 milioi omen dena. Orain arte bankuekin zorra berfinantziatu ahal izan da baina bankuek bide hori moztu dutenean lehertu da kontua. Gertatu dena da taldeko enpresa guztien dirua kutxa batean jarrita zegoela eta diru hori ez dela behar bezala kudeatu.

“Aurrera egiteko ahalegina egitea erabaki dugu.”

Oraingo lanean jarraitzea erabaki duzue.

Egoera oso larria zela konturatu ginen. Bi aukera zeudela ikusi genuen, enpresa pikutara bidali edo denok batera ahalegina egin aurrera egiteko. Bigarren aukera horren alde apostu egitea erabaki genuen urriaren 25eko asanbladan eta horretan dihardugu. Udalarekin ere batu ginen eta alkateak bere kezka adierazi zigun eta laguntzeko borondatea.

Zela ikusten duzue etorkizuna?

Orain arte ez dugu izan konfidantzarik zuzendaritzarekin. Gezur asko esan dizkigute eta kontu asko ezkutatu. Orain egunero batzen gara gerentearekin eta ondo informatuta gaude behintzat. Hala ere ez dakigu hau zela amaituko den. Hitzarmen edo likidazio bidez izango den, zorrarena zela bideratuko den... zalantza asko. Hori bai, lana beti izan dugu eta orain ere badaukagu eta hori ikusten dugu aurrera egiteko bidea. Borrokan jarraituko dugu GOLek bere langile guztiokin aurrera egin dezan eta ahal izanez gero lanpostu gehiago sortzeko.

“Orain egunero batzen gara gerentearekin.”



DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Sorluze

Hnos. **BENITO**
ANAIK



Etxeko eta Sukaldeko Altxariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Etxebizitza hutsen gaineko zerga %75 altuagoa izango da

Datorren urterako zergak %3,1 altxatzea onartu zuen udalak urriaren 26ko udalbatzarrean. Orokorrean %3,1ekoa izango da igoera, EAEn KPlak izan duen igoeraren parekoa. Zaborretan ostera bajuagoa izango da igoera, %2koa, eta handiagoa kiroldegiko kuotetan, KPlarekin batera BEZaren igoeraren heren bati dagokion % 4,3 gehiago ere kobratuko da eta. Hala ere igoerarik han-



diena etxebizitza hutsen gaineko zergari ezarriko zaio, %75ekoa. "Etxebizitza hutsak merkatura atera eta alokairua bultzatzea da" udalaren nahia.

EAJren eta PSE-EEren kritikak

Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin onartu ziren tasa berriok. "Gutxienez dutenentzako bonifikaziorik" jaso ez izanagatik eman zuela ezezko botua azaldu zuen alderdi sozialistak. EAJk, abstentzioa udalaren egoera ekonomiko "delikatua dela eta" eman zuela argitu nahi izan zuen eta Bilduk neurriok hartu izanaren "helburu bakarra diru sarrerak handitzea" dela salatu zuen. Alkateak bere aldetik, tasa hauekin "herritarrei ahalegin fiskal handiagorik ez eskatzea eta bonifikazioak mantentzea" lortu dutela azpimarratu nahi izan zuen.

Hileko puntua



Hitanoa landu dute hogeit bat lagunek

Joan zen martitzenean eman ziztzaion bukaera Jon Basaurik gidaturiko hitano ikastaroari. Soraluzeko aditz taulen liburuxkan jasotako formak oinarri hartuta, idatzizko ariketak eta mintzapraktika landu dituzte hilabetez, hogeit bat lagunek. Aurrerantzean afarien bitartez mintza-saioei jarraipena emateko asmoa erakutsi dute. mendi inguruak, Soraluzen onddo beltz eta txuriak dira ugarietak.

FotoNotizia



Perla ederra batu zuen Retolazak

Onddo bila irten eta sorpresaz, 1.250 gramoko Boletus honekin egin zuen topo Roberto Retolazak. Perretxikuzale ona izanda, ez du esan non batu zuen baina aitortu du hasi berri dagoen pinudi batean aurkitu zuela. Oso-osorik eta gogor zegoela ikusi eta, etxerako batu zuen. Azken egunotan onddo ederrez jantzi dira mendi inguruak, Soraluzen onddo beltz eta txuriak dira ugarietak.

Motzean

Elkarretaratzea eta poteo feminista azaroaren 25ean

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna aldarrikatzeko honako egitaraua antolatu dute Udaleko Parekidetasun Sailak eta Emakumeen Topaguneak: Hilaren 21ean, 19:00etan Zinean: "Emakumeak Francoren espetxeetan" berbetaldia eta "Rosari Dinamitera"ri elkarriketa.



Hilaren 23an, 19:00etan Zinean: "Beldur Barik" sari banaketa.

Hilaren 25ean, 13:00etan: elkarretaratzea, jarraian, poteo feminista.

Hilaren 30ean, 22:15ean Zinean: "No es facil" antzerki emanaldia.



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERCATU PLAZA

ESKERRIK ESKO PLARENTZIETARREI
GUGAN IZENDAKO KONFIANTZAGATIKI

Geriatría zerbitzua aldarrikatu dute Gipuzkoako LAB Duintasuna plataformako jubilatuta eta pentsiodunek batzarraren egin zuten martitzenean, Zinean. Topaketan geriatría zerbitzuen inguruko gaiak landu zituzten eta helduen eta pentsionisten oinarriko eskubi-deen agiria zabaldu zuten. Eguerdian elkarretaratzea burutu zuten hogeita hamar bat lagunek Plaza Barrixan.



Bizikalek 200 euroko bi sari zozketatuko ditu

Bizikale merkatariek elkartea errifak banatzen dihardu bere elkartearen pun-tuetan erosketak egiten dituztenen artean. 200 euroko bi sari banatuko dituzte, elkartearen osatzen duten denden gastatuko direnak. Errifok azaroaren 28ra bitartean eskuratua ahalko dira, egun horretan egingo baita zozketa eguerdiko 13.30ean, Zubi Nagusian.

Herriko odol-emaleei omenaldia

Urriaren 28an Debabailarako ehun odol emalei omenaldi zuzten, tartean, sei sor-luzetar. Odol-emaleak urte osoko es-fortzua saritu eta gazteak animatu nahi dituzte odola ematera. Azaroaren 23an 18:30etik 20:30era bitartean egongo da odola emateko aukera, Itxaropenan.



Iturria: Goierna

Dozenatik gora ardi hil dituzte zakurrek

Azken hilabeteotan zakurrek hainbat aldiz egin diete eraso artaldeei eta dagoeneko dozenatik gora ardi hil dituzte. San Andres auzoan gertatu dira erasorik gehienak; Boskoitti, Zabaleta eta Barrene-txe baserrietako artaldeetan. Hortik kanpora Arritxa baserriko artaldeko 5 ardi hil zituzten, Urkia Zelai inguruan. Baserritarrek euren haserrea agertu dute udalarekin izandako azken bileretan eta erasoan inguruko neurriak hartzeko eskatu dute.

Erlamino asiaticokoak herrian

Azken asteotan erlauntzen inguruan erlamino asiaticokoak agertu direla jakinarazi dute herriko hainbat erlezainek. Erlaminook bertako erle motei eraso egin eta jan egiten dituztela azaldu zuten Dabid Elizburu erlezainak. Gaztañerreko azokan izan duen postuan bertan erakutsi zuten erlauntza asiaticoa. Elizbururen esanetan, "orain hamar bat urte heldu ziren Bordelera itsasontzi bateko kargamentuan gordeta" eta ordutik eten barik ari omen dira zabaltzen. Erlauntzen bat ikusiz gero udaltzaingoari parte emateko eskatu dute.

Baserrietan konpostatzea zabaltzen

Baserrietan konpostatzeko ohitura zabaltzeko Debabarreneko Mankomunitateak martxan jarri duen kanpainaren berri eman zuten martitzenean udal-txean egindako batzarrean. Mankomunitateko teknikariak baserriko baserri ibiliko dira zela konpostatu behar den erakusten. Edukiontzien eskaera egiteko aukera ere izango dute baserritarrek.



lazgo neguan gertatutako eraso baten ondoriozko irudia.

Txurrukaren askatasuna aldarrikatuko dute domekan

Lurdes Txurrukak azaroaren 18an espetxean 18 urte beteko dituela eta, manifestazioa deitu du domekarako Herri-rira mugimenduak. Mobilizazioa Plaza Barritik abiatuko da, 19:30ean. Eguazte-nean egin zuten deialdia prentsaurreko bitartez. Azaldutakoaren arabera, Lurdes Huelvako espetxean dago, heritik 1.200 kilometrora. Azken hiru urteetan isolamendu egoeran, bakartuta izan dutela eta leku-aldatze gogorrak pairatu behar izan dituela salatu zuten Herriak.



Domekan 18 urte beteko dira Lurdes espetxeratu zutela.

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



Bertakoa, sasoihoa, ekologia
BIZI EUSK



Iturria: Gaztetxea

Iturria: Gaztetxea



koa, naturala delako ARAZ!



Kutxa eta Biolurren Ekolapiko egitasmoak eskoletako jantokietan janari osasuntsuagoa ematea bultzatzea du helburu. Bide hori hartu duten edo hartzeko bidean diren ikastetxeen berri eman zuten azaroaren 6an Zinean eman zuten hitzaldian. Plaentxi Herri Ikastetxean catering zerbitzuaren bitartez eskaintzen da jantokiko zerbitzua.

Zer irudituko litzaizuke eskolako jantokiko catering zerbitzua aldatzea?



Miriam Hernandez

Nere seme-alabak jantokira joaten dira, horrela errazago moldatzen ga-relako. Oso gustora gaude jantokiko zerbitzuarekin eta ez daukagu kezka berezirik. Dena dela, zerbitzua hobetzeko aukera balego, ados geundeke.



Dani Fulgencio

Guk laguntza handia daukagu inguru-ruan eta biok lan egin arren, ez dugu umea jantokira bidaltzen. Nere biko-teak catering zerbitzua oso ondo eza-gutzen du, lanean probatuta, eta ez du batere gustoko. Guretako oso garrantzitsua da janaria kalitatekoa izatea.



Jose Ramon Zabala

Gure semeek etxean jaten dute eta etxeko jana. Nik ezagutzen dut catering zerbitzua eta kontrakoa naiz. Nik ez dut hori nahi nere semeendako. Nere ustez janaria kalitatekoa izateari garrantzia handiagoa eman behar zaio.



Aurora Mateo

Gure seme-alabak jantokira joaten dira, urrin bizi garelako eta biok lan egin izan dugulako. Gustora gaude zerbitzuarekin eta ez dugu kezka be-rezirik. Menua erakusten digute eta ondo ikusten dugu. Naturalagoa iza-tea ere ondo ikusiko genuke.

Hurrengo alea abenduaren 21ean kaleratuko dugu

47. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA
2012KO ABENDUAREN 6TIK 9RA

ANTOLATZALEA: gerediaga
KULTURA CONSERVADUA: Kalle dor kargitza
BARESE BARRUA: BFA DFB
BARESE PUBLIKOK: DURANGO
BARESE PRIVATOK: bbk, EROSKI
KOMUNIKADURA: TOKIKOM

Kirol emaitzak

PELOTA

Idoate – Laskurain	14
Ezkurdia – Zubieta	22
Epelde	22
Jauregi	13
Sancho – Altuna	22
Aldape – Atxotegi	12

FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Eibartarrak	1-1
Sailkapenean 5.na, 1.etik 4 puntura	
Sora (Erreg.) – Bergara B	5-2
Sailkapenean 3.na, 1.etik 12 puntura	
Sora (Jub.) – Aretxabaleta	2-1
Sailkapenean 3.na, 1.etik 12 puntura	
Mutriku – Sora (Kad.)	3-0
Sailkapenean 6.na, 1.etik 15 puntura	
Sora (Inf. Mut) – Zestoa	6-11
Sailkapenean 4.na, 1.etik 3 puntura	
Zumaiaiko – Sora (Inf. Nesk)	0-1
Sailkapenean 5.na, 1.etik 8 puntura	

Agenda

PELOTA

Gaur, 22:00etan Aranen
Santamaria – Kortaberria
Andoaingo bikotea

Astelehena 19, 16:30ean Tolosan
Titin III – Laskurain
Ezkurdia – Zabaleta

FUTBOLA

Zapatua 17, 18:00etan San Migelen
Mutrikuarrak – Sora (Erreg. Pref.)

Zapatua 17, 15:30ean Unben
Eibartarrak – Sora (Erreg.)

Domeka 18, 17:00etan Unben
Urki – Sora (Jub.)

Zapatua 17, 16:30ean Ezozin
Sora (Kad. Mut.) – Eibartarrak

Zapatua 17, 10:30ean Ezozin
Sora (Kad. Nesk.) – Arizmendi

Domeka 18, 10:30ean Ezozin
Sora (Inf. Mut.) – San Patricio

Domeka 18, 10:30ean Ezozin
Sora (Inf. Nesk.) - Mutriku

Mikel Hernandez lehena San Pedroko igoeran

Urriaren 12an jokaturako Julian San Juanen Oroimenezko San Pedroko bizikleta igoeran, Elgoibarren, Mikel Hernandez txirrindulari soraluzetar gazteak lehen postua eskuratu zuen. Hamalau minutu eta bederatzi segundoan egin zuen Elgoibarko Kalegoen plazatik Idoberainoko bidea.



Iturria: Barern

105 lagun batu zituen mendi taldekoen Bazkide Egunak

Mendi taldeko lagunek jai giro eder eta Mjendetsuan agurtu dute, udaberrira bitartean, mendi irteeren egutegia. Guztira hamahiru ibilaldi egin dituzte eta azken txangoan 105 bazkidek hartu zuten parte. Trenbide zaharretik Txurrukarako bidea hartu zuten eta handik San Andresera abiatu ziren. Ohikoa den babajanaren aurretik urte osoan zehar zortzi gailur egin dituzten mendizale gazteei domina bana banatu zitzairen. Martxoan ekingo diote berriz egutegia antolatzeari.



Mendi taldeko gazteak, banatutako medailak eskuan.

Iturria: Niko Mendia

Velazquez eta Esnaola lehenengo soraluzetarrak Antxintxinkan

Ehundaka korrikalarik parte hartu zuten azaroaren 3an Soraluzetik Bergarara egin zen Antxintxinka lasterketan. Hasi aurretik minutu bateko ixilunea egin zen Iñaki Ruizen oroimenez. Lasterketa lehen gizonezkoa David Gartzia durangarra izan zen eta emakumezkoetan, Aitziber Urkiola eibartarra. Guztira hama bi soraluzetarrek hartu zuten parte. Behobia-Donostia lasterketan ere izan ziren herritarrak, dozenatik gora. Soraluzetarren sailkapenak:



Ehundaka lagun bidegorrian antxintxiketan.

Iturria: Carlos de Cos

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**



ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Diseinua eta Sormena

Poligono Amillage, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Crazy Wheels talde soraluzetarra "Banden Lehian" sailkatu da

Ina Arriolak, Juan Fernandezek eta Iosu Arriolak osatzen duten Crazy Wheels musika taldea "Banden Lehian" musika lehiaketako lehen postua eskuratu, eta beste hiru tal-

Iturria: Irune Usunaga



Eskuman, Ina Arriola soraluzetarra gitarra jotzen.

derekin batera, azaroaren 30ean Bilborock aretoan jokatu den finalerako sailkatu da. Zuzeneko emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Blues talde klaseetan izen-ematea zabalik

Euskal Herrian estreinakoz, azaroaren 29an, 30ean eta abenduaren 1ean Tonky de la Peña gitarrajole ezagun madrildarrak blues talde klaseak eskainiko ditu Soraluzen. Ikastaroa Gaztelupeko Hotsak zigiluak antolatu du eta asmoa da ahalik eta musikari gehien batzea. Taldeetan antolatuta, inprobisazioari bide emateko urratsak landuko dituzte eta bukaeran, JAM session bat egingo da parte hartzaileen artean. Eskolek hiru orduko iraupena izango dute eta 80 eurokoa da matrikularen prezioa. Ikastaroan izena emateko 686 028 946 (Gaizka) telefonora deitu behar da.

Ezoziko Ama Abesbatza arrakastatsu aritu da Portugalen

Iturria: Abesbatza



Abesbatzako kideak, Portugalera heldu berritan.

Urri bukaeran Portugalgo Alqueidao da Serran, Fatimako basilikan eta Pombal hirian kantaldiak eskaini zituen Ezoziko Ama Abesbatzak. Kantaldiotara jendetza erakarri zutela eta portugaldarrek harrera ezin hobea egin zutelara aipatu dute koruko kideek. Plaentxiako abesbatzako kide bat portugaldarra da eta bere bitartez ekarri zuten, orain urtebete, Alqueidao da Serrako abesbatza Soraluzera. Datorren urterako asmoa da Pombal hiriko abesbatza herrira ekartzea.

Kultur agenda

Gaur, azaroak 16

KONTZERTUAK

Turboshit + Nealta Fola + Beste talde bat. 22:30ean, gaztetxean.

Ant: Gaztetxea

Azaroak 18, domeka

ARGAZKI RALLYA

Izen-ematea: 8:30etik 9:30era Kontrargiko lokalean

Ant: Kontrargi Argazki Kolektiboa

PAILAZOAK

Poxpolo eta Mokolo

17:30ean, Osintxuko Frontoian.

Ant: Herri Batzarra

Azaroak 20, martitzena

HITZALDIA

Krisiaren inguruko mahaingurua 19:00etan, Zinean.

Ant: Udala

Azaroak 21, eguaztena

SANTA ZEZILIA BEZPERA

Musika eskolako ikasleen kalejira 18:30ean, herrigunean.

Ant: Musika Eskola

HITZALDIA

"Emakumeak Frankoren espetxeetan". 19:00etan, Zinean.

Ant: Udaleko Parekidetasun Saila

Azaroaren 22tik 30era

ERAKUSKETA

Krabelin Pintura Eskolako gazteen margolanak, Kiroldegiko Erakusketa Aretoan.

Ant: Krabelin Pintura Eskola

Azaroak 23, barixakua

SANTA ZEZILIA EGUNEKO

OSPAKIZUNA

Abesbatzaren kalejira

19:30ean, Eliz atarian.

Ant: Ezoziko Ama Abesbatza

KONTZERTUA

Baby blues + Transistores 50

22:30ean, gaztetxean.

Ant: Gaztetxea

MABE
ILEPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabel kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Zorion agurrak



Marko Akizu
Urrian 26xan 8 urte!
Zorionak patxo askokin,
etxekuen partez!



Nahia Mendia Hernaez
Azaruan 23an 6 urte!
Zorionak polittori! muxu
haundi bat Euken eta
etxekuen partez!



Naroa Etxeberria
Azaruan 17xan 2 urte!
Zorionak poxpolin, muxuak
danon partetik, bereziki
Aritzen besarkada



Lander Zubizarreta
Urrian 19xan 8 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat etxekuen partez!



Manex Osinaga
Azaruan 21ian 9 urte!
Zorionak Mirenen eta
gurasuen partez! Beti bezain
jator jarraitu!



Marina eta Ane Gabilondo
Urrian 29xan eta azaruan 9xan,
14 eta 11 urte bete dozuezelako, muxu
ikaragarri pila, etxeko danon partez!



Oier Gonzalez Urrian 11n 9 urte!
Daniel Gonzalez Urrian 23an 13 urte!
Zorionak eta muxu potolo haundi bana
etxekuen partez!



Garazi eta Iraitz
Azaruan 10ian 3 urte!
Jarraitu beti bezain alai eta bihurri!
Muxutxu asko familixian partez!



Miren Alonso Irailan 6xan 10 urte
Goretti Alonso Urrian 1ian 6 urte!
Zorionak etxekuen partetik!



Migel Angel Fernandez Azaruan 6xan 44 urte!
Iker Fernandez Azaruan 3an 4 urte!
Muxu haundi-haundi bat bixoi,
amaman partez!

Jaiotakoak eta hildakoak



Ekain Ariznabarreta Jauregi



Estefania Heras Fernandez
Francisca Telleriarte Basterretxea
Basilisa Zuzazua Urrutia
Juana Rivero Etxeberria
Rufina Markinez Garcia
Sabina Oregi Unzueta
Fermin Ruiz Ruiz

Lehiaketa

Zein da?



Saria:
"Bazen behin...
bizitza" mahai jokoa

Aurreko aleko erantzuna

Jon Basauri, hitano ikastaroko irakaslea.

Irabazlea



Kattalin Altuna

Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Iturria: Valeriano Madrid

“LA EDUCACIÓN DE LOS PADRES” ANTZEZLAN EMANALDIA

1962ko otsailaren 21ean, 23an eta 26an herritar talde batek, “La educación de los padres” antzezlan eskaini zuen eliza ondoan zegoen “Cine Soraluze” antzokian. Bi urte lehenago, 1960.ean estreinakoz, “Nosotros... ellos y el duende” antzezlan taularatu zuten. Antzerkiotan parte hartzen zuten aktore

soraluzetarrak amateur mailan aritzen ziren, antzeztea gustuko zutela eta, ondo pasatzeko helburua zuten. Ikusleek hamar pezeta ordaintzen zituzten eta zinea goraino beteta egon ohi zen emanaldi egunetan. Frankismo garaiko debekuengatik, ikuski-zun guztiak gaztelaraz izaten ziren.

Argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Valeriano Madrid, Solange Muro, Felipe Valera, Maria Ines Bolunburu, Jose Miguel Chueca eta Piedita Larrañaga.

Soraluze. **iragarki**laburrak.com

Salgai:

- Orturako tresnak salgai. Motokultore berria salgai eta desbrozagailua opari. 200 Euro.
 - Cacherra (presio handiko garbigailua). 80 Euro.
- Harremanetarako: 688 665 627

Lana:

KAZETARIEN LAN POLTSARAKO DEIALDIA

Bidali kurrikulumak koordinazioa@pilpilean.com helbidera. Baloratuko da formazioa eta esperientzia antzeko lanetan. EPEA: Azaroak 30
Pil-pilean Euskara Elkartea.





SORALUCE

50 1962 / 2012

AMETSA GAUZATU IZANAREN POZTASUNA

SORALUCE 50 URTEURRENA DVDaren AURKEZPENA,
azaroaren 28an, arratsaldeko 19:30tan, Soraluzeko polikiroldegian.

Animatu zaitetze!



DANOBATGROUP

SORALUCE

Osintxu Auzoa s/n - P.O. Box 90
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa) - SPAIN
Tel.: +34 943 76 90 76



...eta hik?

Azaroak 24, zapatua
“BATU SUTONDORA!”

Pil-pileanen Batzar Nagusia.
10.00etan, Zinean.

Abenduak 1, zapatua
“EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU!”

Manifestazioa Donostian
15:30etan autobusa Estaziñon.
Antolatzailea: Euskararen Kontseilua.

Abenduak 13, eguena
“OSOA, LEHIAKORRA, NAZIONALA
EUSKARA BATUAREN BIGARREN JAIOTZA“

Hitzaldia. Xabier Amuriza.
19:00etan, Zinean.

